









# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

## Baliabide fisikoak



Bazkideetako batek	Erosi
 	 
 	
	Bakoitzak berea

## Giza baliabideak

5 kideak + azpikontratatuak ( dietistak, bezeroen arreta, marketinga).

## Finantza-baliabideak

Gure proiektuaren finantza-baliabideei dagokienez, erakunde publikotik diru laguntzak lortzea da gure asmoa. Hala ere, hau lortuko ez bagenu, bankuan mailegua eskatuko genuke. Hau, 20.000€-koa izango litzateke, gure proiektuari hasiera emateko behar dugun diru kopurua, hain zuzen ere.

Bankuetan baldintzak begiratu ostean, honela izango litzateke gure gutxi gorabeherako aurrekontua:

Lehenengo urtean, hilabetero.	296.30 €
Hurrengo urteetan, hilabetero.	302.69 €
Guztira, 84 hilabetetan.	25349.28 €
Interesak	7,19%

## Baliabide intelektualak

Aplikazioa zerotik sortuko genuke. Horretarako, gure taldean badaude errekurtsuak ideia aurrera eraman ahal izateko. Hauek dira enpresak funtzionatu ahal izateko aurreikusi ditugun ardurak:

### APLIKAZIOAREN DISEINUA

**Iraitz Zuloagak** egingo du. Izan ere, marrazketa teknikoko eta irudi-soinuko ezagutza zabalak dauzka kargu hau bete ahal izateko.

### PROGRAMAZIOA

**Asier Villar**, informazioaren eta komunikazioaren teknologian trebatu da zenbait urtetan eta beraz, alor honetako ezagutzak dauzka.

### ENPRESA ETA ELKERTEEKIN KONTAKTUA

Proiektu honetan, nutrizionista, dietista eta hornitzaile ezberdinen presentzia nahi genuke. Horrela, **Iraitz Zuloagak** proiektua oso ondo ezagutzeaz gain, ideiak ongi komunikatzeko gaitasuna dauka. Horregatik, lan hau betetzeko aukeratu dugu. Hala ere, **Jon Otaegik** ere enpresekin komunikazioan lagunduko du.

### MARKETINGA EGIN

Lan hau ongi egiteko jakituria asko eduki behar denez, kanpoko norbait kontratatuko genuke.

### INBERTSOREAK LORTU

**Jon Otaegik** jendea konbentzitzeko erraztasuna dauka. Gainera, proiektua ondo ezagutzen du.

### BEZEROEN ARRETA

Bezeroekin komunikatzeko, telefono zerbakia eta gmaila egongo dira, edozein arazo edo kontsulta egin ahal izateko. Honek, denbora asko eskatzen duenez, taldeko kideok ezin dugu lan hau bete. Horregatik, bi pertsona inguru kontratatuko genituzke, gure proiektuaren helburua ondo azalduz, lan hau betetzeko.

### EMPRESA KUDEATU

**Nagore Bengoetxeak** enpresaren ekonomia eta administrazio eta enpresaren kudeaketa ikasi ditu zenbait urteetan, hori dela eta, enpresa kudeatzeko pertsona egokiena da, gainera, proiektua taldean sortu dugunez, honi buruzko ezagutza dauka.

### SARE SOZIALEN KUDEAKETA

**Nagore Bengoetxeak** eramango ditu sare sozialak, teknologia berriekin oso ondo moldatzen da eta.

### KONTABILITATEA ERAMAN

**Aitzol Otegit** administrazio eta enpresaren kudeaketa landu duenez, atal honetaz arduratzeko gai da. Hala ere, **Nagore Bengoetxeak** ere lagunduko du lan honetan.